

## **FUNTSEZKO SOZIETATEAK**

### **• Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Gure ekimena aurrera eramateko beharrezkoa dugu beste zenbait enpresekin elkarlanean aritzea, baliabide batzuk lortzea ezinezkoa egiten baitzaigu. Bestalde, negozio-eredua optimizatu nahiko genuke, hiru pertsona izaterakoan gehiegizko lan karga baidugu eskaini nahi dugunari formatu erakargarria emateko.

Lehenik eta behin, espazio egoki bat beharko genuke paintball zirkuituak muntatzeko. Olatz auzoan kokatuta dagoen lur-eremu baten finkatu genuen nahiak, gure proiektuarentzat egokiena iruditu baizitzaigun, eta hauen jabea zein zen jakin ondoren berarengana jo genuen. Berarekin elkarrizketa izan ondoren 2 hektareako lur eremua errendatzea lortu genuen hilabetean 900€-gatik (denbora asko eman genuen tratua egiten eta asko merketzea lortu genuen). Hurrengo pausoa zirkuituak muntatzea dugu eta horretarako

enpresa eraikitzaile batekin kontaktuan jarri ginen. Hau aurrera eramateko dugun eremuak ez du zuhaitzik (izan ezkeru diru asko aurreratuko genukeen, hauek babesleku edo bestelako funtzioak izan ahal dituztelako) baina maldaz betetako zoru desnibelatua du eta aldeko puntu bat da. Enpresari hesi batzuk erosi nahi genizkion eta baita ere zenbait babesleku muntatzeko eskatu, haiek hoberen ikusten luketen materialarekin. Materialarekin lotutako beharrekin amaitzeko paintball marka batekin tratuan ibili ginen, pistolak, txalekoak, kaskoak eta dekoraziorako zenbait manta eta antzeko erosteko eta egin genuen erosketa handiarengatik kolaborazioa eskaini ziguten. Horrela gure zirkuitua haien kartekez beteta dago, baita ere txalekoak. Horren truke, materiala falan dugunean haiek dohainik ornituko gaituzte.

Behar materialez gain, publizitatea egitea ere beharrezkoa dugu eta horretarako zenbait komunikazio talderekin batu gara. Herri txiki baten landa-eremuan kokatua egoteak beharbada ez dio ematen beharrezko duen ikusgaitasuna eta horretarako lehenengo pausoa maila lokaleko komunikabideekin kontaktuan jartzea da. Herriko aldizkariak gogo onez onartu zuen gure publizitatea jartzea hilabetekarian (diru-sarrera finko baten truke).

## **FUNTSEZKO SOZIETATEAK**

Hurrengo pausoa zenbait **bidai agentziekin** parte hartze bat proposatzea izan zen. Asko oso kulturalak ziren eta ez gintuzten kontuan hartu baina 3bat aisialdi agentziak gure zirkuitua haien programazioan sartu nahi izan zuten. Azkenean 2rekin geratu ginen, haiek garraioa eta guk ezpazioa jartzeko arduratuz. Tratu hau oso ondo atera zitzaigun, agentzia ezagunak baidira eta gure aldetik haiek antolatutako ekimenetan %20ko deskontua egitea proposatu genien eta oso gustura onartu zuten proposamena. Falta zitzaigun agentziak garraioa guk jartzea eskatzen zigunez eta gastu asko izaten hari garenez ezezkoa eman genion.

Bukatzeko, kideetako batek internet bidezko publizitatea egitea proposatu zuen eta guztiz beharrezkoa ikusi genuen, garai hauetan ematen hari den digitalizazioak asko mugatu baidu informazioa lortzeko bideak. Horrela, gure webgunea sortu dugu eta zenbait webgunerekin deskontu bonuen bidez tratuak egitea lortu dugu, haiek publizitatea egitearen truk. Guk geuk sortuko dugu webgunea, formakuntza nahikoa baitugu sare sozialetan.

### **• Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?**

Taldekieon egitasmoa bada ere, ezinezkoa litzateke baliabide guztiak guk geuk lantzea, adibidez tintazko armetaz ideia oso urriak ditugulako.

Beharrezkoa ikusten dugu beste zenbait talde edo banakakorekin elkarlanean ibiltzea guztioi mesede egiten digulako. Gainera, "Label"-ari garrantzia ematen diogunez, kolaboratu dugun ekintzaile guztiak gure inguruetakoak dira, hau da euskal enpresak, eta turistei bideratuta badago ere, inguruko herrietako eta bertoko jendea etortzea ere nahiko genuke. Gehienbat beharrezkoak ditugulako dira guretzako garrantzitsuak, horrela kolaborazio sare bat sortzen dugulako eta enpresa eredu optimizatu nahi dugulako.